

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 4172

*37/2024 DEKRETUA, irailaren 2koa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko zenbait kide aldatzekoa.*

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 5. artikulua lehendakariari esleitzen dio instituzio, antolakunde, entitate eta elkarteek batzorde-rako hautatzen dituzten ordezkariak izendatzeko ahalmena, eta lege-testu bereko 7. artikulua ezartzen du batzordea osatzen duten pertsonen aldia lau urtekoa izango dela eta ez dela eragozpenik izango haiek berriro hautatzeko.

Legeak ezartzen du, gainera, batzordean ordezkariak duten instituzio, antolakunde, entitate eta elkarteek aukera dutela titular edo ordezko izendatu dituzten pertsonak aldatzeko. Izendatua kargu horretan arituko da ordezkatuari bete behar zuen eta aurreko paragrafoan aipatu den lau urteko epea bete arte geratzen zitzaien denbora igaro arte.

Lege horren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta 7. artikuluekin lotuta, Euskadiko Langile Batzordeen Konfederazio Sindikalak (CCOO) lehendakariaren irailaren 13ko 22/2023 Dekretuaren bidez izendatutako kide titular bat eta ordezko bat ordeztu ditu, eta bera ordezkatzeko beste batzuk izendatzea erabaki du.

Horren ondorioz, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Estibaliz Montero Mendoza andrea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide titular izendatzea; Euskadiko Langile Batzordeen Konfederazio Sindikalak (CCOO) hautatu du, Arantza Martínez Tobalina andrea ordezteko.

2. artikulua.– Juan José López Díaz jauna Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko ordezko kide izendatzea; Euskadiko Langile Batzordeen Konfederazio Sindikalak (CCOO) hautatu du, Estibaliz Montero Mendoza andrea ordezteko.

3. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko irailaren 2an.

Lehendakaria,  
IMANOL PRADALES GIL.